

Diru-iturriak

ULEM enpresak hainbat diru-iturri izango ditu. Diru-iturriak enpresa batek jasotzen duen diru kopuruak dira. Diru kopuru hauek enpresei mozkinak edo etekinak izatea egiten die. ULEM enpresaren diru-iturriak hauek izango dira: ekoizten diren produktuen salmentak, gobernuak eskaintzen dituen diru-laguntzak, enpresak bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzu-teknikoa, enpresek gure enpresan egingo duten inbertsioak eta egingo ditugun kanpainetatik ateratzen ditugun dirua.

Bi diru-sarrera mota daude, ordainketa bakarreko diru-sarrerak eta ordainketa errepikariak. ULEM enpresak hiru ordainketa bakarreko diru-sarrera izango ditu eta ordainketa errepikari bakarra.

Alde batetik, ordainketa bakarrekoak hauek izango dira: ekoizten diren produktuen salmentak, enpresak bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzu-teknikoa eta egingo ditugun kanpainetatik ateratzen dugun dirua. Diru-iturri horiek ordainketa bakarrekoak izango dira; izan ere, aldi batean ordaindu behar dira eta ez aldi batean baino gehiagotan.

Bestetik, gobernuak enpresari emango dizkion diru-laguntzak eta enpresak gure enpresan egingo duten inbertsioa. Diru-iturri hori ordainketa errepikaria izango da; izan ere, aldi batean baino gehiagotan ordainduko dute. Hala ere, txalekoak hainbat alditan ordaintzeko aukera egongo da, guztia momentu berean ordaintzeko gai ez diren bezeroentzat, horrela aukera ematen diegu ere diru-sarrera murriztuagoak dituztenei.

DIRU-SARRERAK LEHENENGO HILABETEAN

SALMENTA	85€/txalekoko	x100	8.500€
DIRU-LAGUNTZAK	1500€	x1	1.500€
ZERBITZU-TEKNIKOA	25€(bataz beste)	x25	625€
KANPAINAK	10€/pertsonako	x150	1.500€
		Guztira	12.125€